

## Funtsezko jarduerak:

-PRODUKZIOA-HOLOGRAMA: Hologramak eraikitzea gero dendetara eramateko. Produktzioan teknologia ezberdinak erabiliz hologramaren piezak elkartuko ditugu (web-camera, pantaila, kableak, piezak...). Behin pieza sortua, probak egingo dira hologramak funtzionatzen duela egiaztatzeko. Ondoren, biltegian gordeko dira gure bezeroek holohgramak behar izan arte. Furgonetek garraiatuko dituzte hologramak dendetara eta instalatuko dituzte.

Aplikazioaren aldetik, I+G+Bn parte hartuko dugu teknologia berriak bilatzeko eta aplikazioa hobetzeko eta eguneratzeko-

-PLATAFORMAKO EDO SAREKO JARDUERAK: Publizitate-kanpaina egin enpresentzako eta bezeroentzako. Publizitateari esker, gure enpresa handitu litzateke eta horrek onurak ekarri langile guztientzako. Sare sozialak sortuko genituzke, kartelak, iragarkiak... Horretarako, teknologiak erabiliko ditugu eta diseinatzaileak kontratatuko ditugu. Hasiera batean ekintza hau ez dugu egingo, etrokizun batean baizik. Hori bai, funtsezko jarduera izango da ekintza hau egiten hasten garen momentutik.

-GASTUEN KONTROLA: Diru sarrerak eta gastuak garrantzitsuak dira enpresan. Diruaren kontrola egingo dugu enpresaren kapitala ondo zaintzeko eta diru falta ez izateko

-HARREMAN PUBLIKOAK: "Bezeroekiko harremanak" atalean esan bezala, pertsona kualifikatu bat egongo da harreman publikoetarako eta bezeroen ideiak jasoko ditu enpresak hobekuntzak egin ditzan.